

R

berradiskidetze-kultura
berri baterako

2012
indargunea

«Bost proposamen zehatz»

baketik^{arantzazu}

Arantzazu, 2012ko urtarrila

Aurkezpena

2011ko urtarrilean Baketik-ek «Berradiskidetzeko Indarguneak» ekimena jarri zuen abian. Urtero, urtarrilean, bizikidetzaren berradiskidetzeari buruzko agiria aurkeztea da ekimenaren xedea. Urteroko indargune horietako bakoitzak gogoeta- eta proposamen-agiria izan nahi du, izaera irekia eta eraikitzailea duen ekarria.

2011ko urtarrilean egitasmo hau aurkezterakoan, honakoa esaten genuen: «euskal gizartean bizikidetzaren adiskidetzeko eta berradiskidetzeko ahalegin serioa, zintzoa eta zorrotza bereziki beharrezkoa eta egokia den indarkeriarik gabeko epe berria zabaltzen ari da». Bederatzi hilabete beranduago indarkeria behin betiko eteten zuela iragarri zuen ETAk. Urte hasieran egindako gogoetak indarra eta gaurkotasun osoa hartu zuen.

Lehenengo agiriaren izenburua honakoa izan zen: «*Berradiskidetze-prozesu bat modu partekatuan kokatzeko eta bultzatzeko oinarri-proposamena*». Iaz urtean zehar Baketik-ek gai honetan egindako lan guztiaren oinarria izan zen. Besteak beste, 2011ko udaberriko jardunaldien eztabaidarako material gisa erabili zen, Udalei egin diegun proposamena prestatzeko oinarri izan da eta, aldi berean, ikastaro eta hitzaldi ugari eskaintzeko balio izan du.

Orain, lanari ekiteko ordua heldu da. Lan zehatza egiteko garaia da. Horregatik, bigarren agiri hau jarduera-proposamen zehatzak jasoko dituen txostena izango da. Proposamen horiek aurretiko gogoeta batzuk dituzte bizikidetzaren berradiskidetzearen jarduera-eremua argitzeko helburuarekin.

Bizikidetzaren berradiskidetze-prozesua modu partekatuan bultzatzeko **proposamen esparrua**

Abiapuntuak

•Definizioa

Indarkeriak, giza eskubideen urraketak eta krispazioak kolpatutako hamarkaden ostean, berradiskidetze soziala lehentasuna da geure herrian. Errespetuaren eta elkar onartzearen balio nagusia berreskuratzen duen bizikidetze-kultura berria sortzea esan nahi du eta giza duintasunarekiko konpromisoan oinarritzen da hierarkikoki printzipio goren gisa.

•Helburuak

Berradiskidetze-prozesu baten helburuak hiru dira: (1) biktima guztiei eragindako kaltea ahal den neurrian aitortzea, arintzea eta ordaintzea; (2) gizartean sortutako hausturak konpontzea; eta (3) bere oinarriari eta funtzionamenduari buruzko funtsezko adostasunean oinarritutako bizikidetzak laguntzea.

•Ardatzak

Berradiskidetze-prozesuak hiru ardatz ditu: iragana, orainaldia eta etorkizuna; eta hiru galderei erantzun partekatua bilatzean eraten da: zer gertatu da? zein da lehentasuna orain? zer egin behar dugu berriro errepikatu ez dadin?

•Irizpide gidaria

Erabaki berbera mantentzea; erabaki erabat tinkoa iraganaren berrikuspen etikoa eta kritikoa egin dadin zein orainaldiaren humanizazioari lotua eta gizarte mailan bizikidetze-etorkizun integratuarekin behin betiko konpromisoa hartuz.

Beharrezko lau argibide

•Lehendabizikoa

Berradiskidetzeak ez du arkadia zorionsu baten itxaropena proposatzen. Aldiz, gatazka bera eta bizikidetzari atxikitua dagoela zein hori modu eraikitzailean kudeatzeko arau etikoekiko eta demokratikoekiko konpromisoa onartzen ditu.

•Bigarrena

Berradiskidetze-prozesu baten tesia ez da «bi bando» daudela, baizik eta indarkeriak eta zatiketak kolpatutako hamarkadek badituzpen negatiboa sortu dutela iraganari, orainaldiari eta etorkizunari begiratzeko ditugun moduetan eta horrek bizikidetze-kultura berri batekin gaintzea eta berritzea merezi duela.

•Hirugarrena

Bizikidetzaren berradiskidetze-subjektuak ez dira biktimak eta biktimarioak. Subjektua gizartea eta ordezkari-eragileak dira. Ez da biktimen eginkizuna, gizartearena baizik. Biktimiek prozesu horren onuradun izan behar dute.

•Laugarrena

Berradiskidetze-prozesua eta gatazka politikoaren ebazpen-prozesua desberdinak dira eta modu berezian kudeatu behar dira. Lehenengoak ez dakar nahitaez bigarrenaren ebazpena. Berradiskidetzeak gatazkei aurre egiteko metodologia demokratikoa konpartitzen lagundu behar du.

Bost proposamen

1. Politika-eremuan

·Hiru ardatzetan oinarritutako elkarrizketa-prozesua proposatzen dugu:

·Iraganaren berrikuspen kritikoari dagokionez, gutxienez, azken 50 urteetan gertatutako giza eskubideen urraketa guztiei buruzko «egiazko txostena» egitea adostea, gertakarien errealitatea murriztu eta disolbatu gabe, eta biktima guztiei kaltearen konpontzeko aitorpena eta gertatutakoaren balorazio etikoa partekatzeko helburuarekin.

·Orainaldiari dagokionez, lengoaiari edo jarrerei dagozkien iraganeko inertziak gaindituko eta bizikidetzaren integratuaren on gorena sendotzera bideratutako politika-, legegintza- eta espetxe-ekintzak artikulatuko dituzten humanizazio-neurriak adostea.

·Etorkizunari dagokionez, geure gizarteak dituen edo etorkizunean eduki ditzakeen bizikidetzaren gatazkak lantzeko metodologia etikoa eta demokratikoa adostea.

2. Udal-eremuan

·Hurrengo urteetan, bizikidetzaren eta berradiskidetze-kultura berri bati etengabe laguntzeko herri mailako politikak bultzatzea proposatzen diegu Udalei.

3. Hezkuntza-eremuan

·Errespetuan eta giza duintasunaren eta giza eskubideen sustatzean oinarritutako bizitzarako, bizikidetzarako eta elkartasunerako hezkuntza-proiektuak bultzatzea proposatzen dugu.

4. Gizarte zibilaren eremuan

·Desberdinen arteko elkarrizketa-, topagune- eta formazio-eremuak sortzea proposatzen dugu etika erreferentzia izango duen eremua partekatzeko.

5. Eguneroko bizitza pertsonalaren eremuan

·Giza harremanetan eta harreman sozialetan bizikidetzaren kultura berriarekin bat datozen bizitzarako eta bizikidetzarako hautaketak bultzatzea proposatzen dugu.

Eranskina

Irizpide-dekalogoia

•Iraganari dagokionez

·Helburua: **Ikusgai egitea.**

·Lehentasunezko aldarrikapena: **Aitortzea.**

- 1. Gertakarien egia.** Sufrimendu, biktima eta giza eskubideen bortxaketa guztiak hartu behar dira aintzat, salbuespenik gabe.
- 2. Interpretazioaren aniztasuna.** Gertatutakoaren arrazoen eta sorrerari buruzko adostasunekin eta desadostasunekin interpretazio politiko desberdinak egongo direla onartu behar da.
- 3. Balorazio etikoa.** Diagnostiko desberdinak eduki arren, posiblea eta desiragarria da gertatutakoaren balorazio etikoa eta prepolitikoa partekatzeko konpromisoa hartzea.

•Orainaldiari dagokionez

·Helburua: **Integratzea.**

·Lehentasunezko aldarrikapena: **Humanizazioa.**

- 4. Enpatia.** Biktima guztienganako enpatiaren garaia da oraina. Beharrezkoa da eragindako mina aitortzea. Autokritika-adierazpenek edo barkamen-eskaerek balio handia izan dezakete; baina bere borondatezko izaera onartu behar da.
- 5. Begirada berria.** Lengoaiaren erabilpenean edo desberdinaren etsai-interpretazio eremuetan iraganaren inertiak atzean uzteko beharrezkoa da ikuspegi- eta jarrera-aldaketa bultzatzea.
- 6. Konpromisoa.** Berradiskidetzea bateraezina da apalkuntza- edo baztertze-exijentziekin. Aldiz, bakea sendotuko eta bizikidetzea integratua egituratuko duten politika-, legegintza-, epai- edo espetxe-neurriekin humanizatu egiten da.

•Etorkizunari dagokionez

·Helburua: **Prebenitzea.**

·Lehentasunezko aldarrikapena: **Konpromisoa.**

- 7. Kultura etikoa.** Gizarte eta hezkuntza mailan, bizikidetzarako eta gizarteko gatazkak kudeatzeko kultura etikoa bultzatzea gizarte zibileko eragileen parte-hartzearekin.
- 8. Metodologia.** Indar politiko guztien artean gatazka politikoak lantzeko metodologia demokratikoa adostea.
- 9. Prebentzioa.** Iragana errepikatzea saihesteko prebentzioari lagunduko dioten beharrezko neurriak identifikatzea, adostea eta horiek denboran iraunaraztea.

•Laburbilduz

- 10.** Erabaki berbera mantentzea; erabaki erabat tinkoa iraganaren berrikuspen etikoa eta kritikoa egin dadin zein orainaldiaren humanizazioari lotua eta gizarte mailan bizikidetze-etorkizun integratuarekin behin betiko konpromisoa hartuz.